

Ezpalak

JON TORNER

Carlos Giménez eta 'Ipurbeltz' omenduko dituzte Getxon



GETXOKO KOMIKIAREN ETA MANGAREN VII. AZOKAK Carlos Giménez (Madril, 1941) *Paracuellos* klasikoaren egilea eta *Ipurbeltz* aldizkaria omenduko ditu. 31 urteko ibilbidearen ostean, euskarazko komikigintzan aitzindari izan zen aldizkaria plazaratzeari utzi zion Erein argitaletxeak duela hiru hilabete, harpidetza kopuruak behera egin zuela eta gizarteko joerak aldatu direla argudiatuta. Getxoko Komiki Azoka azaroaren

28tik 30era bitartean egingo da, Areetako Geltokiko eta Erromoko Santa Eugenia plazetan. Ehun erakusmahai inguru jarriko dituzte bi gune horietan, eta hitzaldiak, proiektzioak, tailerrak eta erakusketak ere izango dira, besteak beste. Iaz 20.000 lagunek bisitatu zituzten bi karpak. Interneten: www.salondelcomicedgetxo.net.

Mikel Laboak jasoko du Gipuzkoako Urrezko Domina

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ematen duen sari garrantzitsuena, Gipuzkoako Urrezko Domina, Mikel Laboari emango diote euskal kultura unibertsalaren ikono garrantzitsuenetakoa izateagatik. Abenduaren 23an egingo duten ekitaldian jasoko du domina 74 urteko musikari donostiarra. Urrezko Dominarekin, gizartearen interes orokorren eta Gipuzkoako balioen alde borrokatzen duten pertsonak edota elkarteak saritzen ditu Aldundiak.

Andres Orozco-Estrada izango da Euskadiko Orkestra Sinfonikoko (EOS) zuzendari titular berria. 2009/10 denboraldian hartuko du kargua, hasiera batean hiru urterako. Orozco-Estradak 31 urte ditu, Medellinen (Kolonbia) jaio zen eta Vienan (Austria) bizi da. Gaur egun Grosses Orchestra Graz orkestraren zuzendaria da.

Ernest Alkat bertsolari behe nafarra (Iholdi, 1951) hilaren 7an hil zen. 1967an eskaini zuen aurreneko saioa, eta hogeita beranduago Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen, baita 1989an ere. Ipar Euskal Herrian Xalbadorren eta Mattinen ondorengo belaunaldiko bertsolaria zen Alkat.

Tuboskapi talde bizkaitarra desegin egingo da.

Taldearen izen bera duen diskoa grabatu dute agur moduan. Musikerria diskoetxeak plazaratu du eta Ondarroako Santos Records estudioetan grabatutako zortzi ska-reggae abesti eta bideoklip bat bildu ditu. 2002an eman zituen lehenengo urratsak Ondarroako taldeak, eta disko berria aurkeztu arren, kontzertu gehiago ez dutela eskainiko iragarri dute taldekideek.



Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak *Gau ilunekoak* ipuina (Elkar) plazaratu du. Baionara helduko den estralurtar baten bizipenek ematen diote hasiera erreferentzia literario ugari dituen liburu horri. Zuri beltzeko ilustrazioak Maite Gurrutxaga amezketarrak egin ditu. Eleberri, saiakera eta poema liburuez gain, hiru ipuin bilduma ere baditu idatziak Sarrionandiak: *Narratioak* (1983), *Atabala* eta *euria* (1986) eta *Ifar aldeko orduak* (1990).

● **Helena Taberna zinemagilea, *La buena nueva* filmaz *Berrian*:** «Nafarroan Elizak izan zuen pape-rari buruzko lehen filma da hau, horra. Zenbat ikusmolde berri edo desberdin ez ote diren egongo! Europako zinema independenteak istorioekin eta gidoi onekin lan egin behar du, efektu bereziekin ezin dugulako lehiatu. Hau da, istorio onak kontatu behar ditugu, ongi kontatu ere. Eta hunkitzen bagaituzte, hobes».

● **Iñaki Azkuna Bilboko alkateak *El Correon*:** «Bilboko Guggenheim museoak arrakastaz beteriko hamaika urte izan ditu eta ezin dira lausotu bere langileetako batek egindako lapurretatik eta obrak eskuratzeko dibisa aldaketa oker batengatik. Legeak berdina izan behar du guztientzako eta jasotakoa ikertzea komeni da ez dadin berriz gertatu. Baina hortik entzun diren gauzetara alde handia dago (...) Kontuz jateko kontuekin. Guggenheima ez da artea

bakarrik, lana da, aberastasun sortzaile da eta ez soilik Bilbon, Euskaditik harago doan eremuan ere bai».

● **Pantxoa Etchegoin EKE-ko zuzendariak *UK* aldizkarian:** «Frantses medio batzuk hartzen dituzu, eta maiz gure kultura agertzen da karta postal batean bezala, oso itxia, zaharkitua, betiko irudiekin... Gu saiatzen gara erakusten eskual kultura modernoa, gaur egiten den kultura bizia, ez bakarrik atzokoa».

Abarrak

UNAI BREA

Gure arimaren hondoa espiatzen zuen gizona

EZ NATOR lan jakin batez hitz egitera, ibilbide literario oso batez baizik. David John Moore Cornwell, John le Carré ezizenez ezagunagoa, ingelesa eta espioi ohia (barka kakofonia). Le Carré-ri aspaldi ezarri zioten “espioitza nobelen errege” titulua; sinplifikazio justifikaezina, nire uste apalean. Zuzenago litzateke “XX. mendeak eman duen giza arimaren esploratzaile bikainenetakoa”, baina besteak erosle gehiago erakartzen du seguruenik.

Le Carré-ren nobelen ardatza jendearen pasioak dira, maitasuna eta traizioa, gudan kabitzen diren miseria guztiak eta dohainen bat edo beste. Espioitza, harentzat, eszenatokia da, bere pertsonaien ahulda-dea erakusteko eskaparate ezin hobea. Akaso, bere aurreko lanbideak besterik ezagutzea eragotzi ziolako hautatu zuen Le Carrék itzalen mundua, akaso gure barne-muinaren erretratua egiteko oihal hoberik ez dagoelako. Nik behintzat, zantzu autobiografikoak sumatzen ditut zenbait pertsonaiaren patetismoan, egileak “begira zer ergelak ginen” aitortu eta barkamena eskatu nahi baligu bezala.

Hala ere, espioitzaren errege etiketa zeraman besteren bati ez bezala, Cornwelli ez dio kalterik egin Gerra Hotza amaitzeak. Aitzitik, orduan eman ditu nobela onenak nire aburuz. Modu bikainean uztartu ditu sentimenduei buruzko istorioak gaur egungo arazo sozial batzuen kontrako salaketarekin, ez baita ahaztu behar Le Carré espioi ohi (barka berriz) ingeles batengandik espero daitekeen bezain ezkertiarra dela.

Salaketa etxe-kalte izan du batzuetan ordea. *The constant gardener* (2001) farmazia-industriaren gehiegikerien aurkako aldarritzat goraiapatua izan da, eta hori ere bada, baina nobela horrek literaturari egindako ekarpenik handiena, gutxiagotan aipatua, alargundu ostean hildako emazteaz maitemintzen den gizonaren istorio hunkigarria da. Le Carréren lanean konstantea da, izan, hunkitze-ko gaitasuna.



John le Carré.

azaroaren 23an
Gernika-Lumon
 Jai Alai Frontoian, 17:30ean

bota
 Bizkaiko bertsolari txapelketa 2008

Fredi Paia
 Ibon Ajuria
 Iratxe Ibarra
 Oihana Bartra
 Jone Uria
 Amaia Uribe

Gaijartzailea:
 Maite Berriozabal

www.botasarean.biz

Argia